

Adiskide Maiteak
EUSKARAZKO ITZULPENEA

LA MÁS BELLA
+ ROXANA POPELKA
+ 16 ADISKIDE MAITE

ikusizko kultura interpretatzen ere. Horregatik interesatzen zaigu zuen aldizkariaren edizio prozesua».

Eta «zeharkatutako» gaia apur bat aztertu ondoren, testu-ipuin-kontakizun-partitura «jostari» bat lantzea pentsatu dugu, zuek, gure adiskide eta kolaboratzaile performer eta/edo editoreek ere, eskatu diguten gai-kontzeptuaz daukazuen erantzun-irritzi-hitz-ahotsen bitartez...

1. OZTOPOA: PLANEK ETA ITXAROPENEK
ERAMAN ZUTEN
ILUNTASUNEAN BARRENA.
2. OZTOPOA: EURIA HASI ZUENEAN
GELDITU EGIN ZIREN
EGUTEGIAK.
3. OZTOPOA: BEGI BAZTERREZ
IKUSI NUEN
EMAKUMEA MUGITZEN ZELA.
4. OZTOPOA: EURIAK GOGORRAGO JO ZUEN,
ABIADURA MOTELDU ZUEN
ZUHURTZIAZ.
IZOZTUTAKO LEKUA LEHORRA
ZEGOEN.

Iristen zaizkigun hitzekin talde-artikulu bakar bat egokitu-josiko dugu, «aldizkari (des)ibili» gisa, alde batetik babeldarra, beste aldetik sinkronikoa... Halakoxeak izan baitira beti La Más Bellaren proiektuak... Eta nolabait ere performancetik hurbila...

Gainera, Roxana Popelka gonbidatu dugu emaitzatik halako «gorputz komun» poetiko bat atera dezan, nola edo hala edukigailu, orrialde zenbakitze, azal, kontrazal e.a. gisa funtzionatuko duena.

Zuen hitzak lehenbailehen behar ditugu. Barka presak. Muxuak.

Halako gogoetek erasotzen zioten etengabe galipot azalera ilun hartan aurrera egin ahala.

La Más Bella

GALIPOT AZALERA ILUN HARTAN
GALIPOT AZALERA
GALIPOT AZALERA ILUN.

AMILDEGIRA JAUZI EGITEA
EZ DA
LEKU EZAGUN BAT.

Adiskide maiteak.

Ez da leku ezagun bat.

Artelekuko *Zehar* aldizkaritik testu bat eskatu digute, hitz hauekin:
«*Zehar*ren ale honetan ulertu eta praktikan jarri nahi dugu performance kontzeptua, edizio-tresna bat baita, gure eguneroko ikusizko kulturaren materiala editatzen laguntzen diguna, eta hartara baita bizi dugun eta zeharkatzen dugun

Helburu bat izango litzateke prozesuaren kontzientzia hartzea, haren bizipen osoan, performance/pieza gure izate/gorputz/ tailerraren bazter ilunen eta ezezagunenean ezkatuz dela ulertzeak eragiten duen nahasmenduari beldurrik izan gabe...

Amildegira jauzi egite horrek aurkikuntza bat eragiten du, kontzeptuak moldatu eta forma ikusgaietara pasatuta, ziur aski eta zorte ona izanda, eguneroko hizkera batera itzultzen dena, eta ondoren, baldin badagokio, literatura edo hezkuntza alorreko azterketa sor dezakeena.

ARRETA JARRIKO DIOGUN SOINURIK GABE?
BI GAUZA BAKARRIK:
1. BADAUKA
2. EZ DAUKA

Iraganeko zenbait esperientzia berriro aztertuz irakur daiteke prozesua. Performance batek beste batera darama, elkarren segidako orriak dira, atalak, liburuak, baina ez dakit nora zaramatzaten. Bost axola! Gogoko dut norabait joatea...

Gure testuinguru gortu honetan, «ikus-entzunezkoa» gora eta «ikus-entzunezkoa» behera, baina ENTZUNEZKOA ardura gutxirekin esan eta pentsatzen dena, badira zuen paragrafoak ahaztu dituen bi gauza kontuan hartu beharrekoak: a) «partitura», edo jarraitu beharreko ekintzaren protokoloa garrantzitsua izaten dela gisa horretako interbentzioak planteatzean, eta b) gurea bezalako kultura hibridatu batean performanceak edo ekintzaren arteak badaukala (edo eduki dezakeela) soinuak osagai esplizitu edo inplizitu bat -alde batera utzita zer euskarritan oinarritu edo adierazten den-, eta hau diogu zuen ikuspegi partzialki bakarrik «ikusizkoa» osatzeko: Nork pentsa lezake bizitza bat arreta jarriko diogun soinurik gabe?

Carlos Llavata

Llorenç Barber

GELDI ZAITEZ...
BEGIRATU
ULERTU.
ORAIN AUKERATU ETA EZ HILDURATU.

GARAIA IGAROTZEN DA
IGAROTZEN DA, BAI, MUGITZEKO ERA BAT DA
IGAROTZEN DA, BAI.
NORBERAK BALIAGARRI JO DEZAKE, EDO EZ.
DENA BAT DA.

GELDI ZAITEZ aurreiritzirik gabe;
BEGIRATU arretaz ingurura; ULERTU ongi bihotzetik hautematen duzuna; AUKERATU kontzientziaz; ORAIN: erantzun horri aurpegian joz ekintza edo onuraren batekin. EZ HILDURATU.

...nik uste performancea beti igarotzen dela garaiarekin batera (edo garaia igarotzen dela ekintza igarotzen delako). Edozeinetara ere, denbora performatiboa da, zalantzarik gabe. Hemen, zapaltzen ditugun tarteko lurraldeetan, uste dut betikoa egiten jarraitzen dugula, egungo garaiak eskaintzen dituen bitartekoak erabilia. Errealitatean egiten duguna, dela ekintza, komisariatze, buru-kudeaketa, ikerketa, argitalpen, dokumentazio... Edo donork

Yolanda Pérez Herreras

baliagarri jotzen duen beste edozein gauza, dena bat da. Azken garaiotan erdi onargarri kalifika genezakeen ikusgaitasun publikoa ustez eskuratzen ari den bizitzan eta artean barrena mugitzeko modu bat da. Hori horrela baldin bada, kasu gehien-gehienetan zor zaio hau egiten dugunon jarraikitasantzari (eta erresistentziari, ez dezagun ahaztu arte militanteaz ari garela). Edizioaren esparruan uste dut dezente aurreratu dela urte hauetan, irudipena dudalako gaia taxutu eta espezializatu egin dela. Alde batetik, ekintza osagai asko metatuta daramatzen eta esateko asko daukan lan bat ikusgai jartzeko premiagatik; bestetik, uste dudalako beste bide batzuk zabaldu direla egitate performatibo edo ekintzaileari aurre egiteko orduan. Nabarmentzekoa da halaber mota guztietako gertakariak, hala nola euskarriak eta hedapenak, betetzen duten paper funtsezkoa, baita ekimen eta lanabes didaktiko jakin batzuek ere, gure lana hurbildu eta hartara «hurbiltze» bide bat errazten dutenak, eta hartatik artean eta bizitzan eskuarki gertatzen den guztira; eta horretan edizioak, iraupen gutxiko osagaia den aldetik, leku oso garrantzitsua du...

Rubén Barroso

AMILDEGI BATERA AGERTZEN ARI AL GARA?
NIRE IDEIAK OTE DIRA?
TERMINO ZEHATZAGOETAN:
ENTE MONOLITIKOA NAIZ NI, E!
EZ, EZ NAIZ.

Gisa horretako galderek amildegi batera agertzen ari zarela sentiarazten dizute.

Hala, teoriarik, argudia liteke performanceak, edo gauzak egiteko modu performatiboak, edizio prozesu bati ekar diezaioketeena berezkoa duen heterogeneotasuna eta bere izaera diziplinartekoa dela. Ekintza artea ez da inoiz ente monolitikoa izan, eta beti lagun egin diote beste kanal eta lan-formatu batzuek. Zehatzago esanda, performatiboa dena edizioaren esparruan

itzul liteke prentsa undergroundaren eta maila artezko zineetatik eratorritako prozedura eta irizpideak aplikatuta (elkarretaratzea, muntaia, jalkitzea, hilotz fin-fina, e.a.), edo espezifikoki performatiboa denetik hurbilago dauden teknikak aplikatuta, hala nola heziketa lana/protokoloa.

Azken kasu horretan, interesgarria suertatzen da ekintza artearen eta medio inprimatuaren arteko harreman konplexuen bigarren mailako eragina. Gauza jakina da, beharrezkoa izan arren, ekintza baten dokumentazioa (beste testuinguru batean egindako ekintza izan edo espezifikoki medio inprimatutakoarentzat egindako ekintza izan, edo «fotoperformance» bat izan) beti dela osatu gabea, zatikakoa, metonimikoa. Ekintza baten ikusizko dokumentazioari horrek ematen dio gainerako inprimatutako argitalpenetan, edo artearen munduari lotutakoetan ere, ikusi ohi ez den egongaitasun bat. Nozio hori -alegia, dena ez dagoela orrietan, kanpoko diskurtsoa ezin saihestuzkoa dela, eta hitz-jarduna ez datorrela bakardade eta isiltasunetik, baizik eta ahots eta hizkuntza ugaritasunezko koru batetik-performatibotasunak edizio prozedura bati ekiteko orduan egin dezakeen ekarpen handiena izan liteke.

Baina orain, beste kontu batzuk direla medio, inprimatutako argitalpenen funtzioa zein izaera pribilegiatua zaltzen jartzen ari den honetan, argudia liteke halaber ekintza artearen alorretik aurkitu direla jada gaia aztertzeke modu erabat desmaterializatu eta iraupen gutxikoak. Zer modu egon daiteke argitalpen bati ekiteko Aldizkari Ibili bat baino performatiboagoa? Madrileko *Revista Caminada* 15 emanaldi bete berri ditu, eta aitortu behar dut gaur egun oraindik interesa pizten didan ekintza artearen produkzio eta harrera formatu gutxietako bat dela.

Kamen Nedev

ZENBATU DEZAGUN:

1. ASPERTUTA NAGO.
2. EZ DUT NAHI, GAUR EZ.
3. EZ DA EZ POESIA EZ ANTZERKIA.
4. ZATOZ, HURBIL ZAITEZ.
5. UKI NAZAZU GEHIAGO
ASKOZ GEHIAGO.

BATETIK 10ERA.

1. Errealitatea berrinterpretatzea kontzeptuak eraikiz edo berreraikiz denbora errealearen, gorputzaren eta testuinguru sozio-espazial jakin baten iraupen laburraz. 2. Alabaina, hainbat aldiz ez da ezer berrinterpretatzen, ez da irudikatzen; gehiago jokatzeko da bestela bezala bide batean abiatzeko, beti berdina izaten ez dena. 3. Badakit: urtesasoen antzera aldatzen da, neurgarritik urruntzen da eta lurralde mortu edo harrigarriro joritsuetatik ibiltzen da. Absurdoak ere badirenak. 4. Gaur ez naiz bilzuko. 5. Aspertuta nago. 6. Bai, noski, beti merkatutik kanpo. 7. Ez, ez zaitut ulertu nahi, ezta zuk ni ulertzea nahi ere. Bihar, zorte pixka batekin, dena ahaztuta izango dugu. 8. Ez da poesia. Ezta antzerkia ere. 9. Objektua ez denaren transzendentzia ezetik ekoizten dugu, baina horrek ez du esan nahi sublimeak garenik. Eta atsegingarria da, gero, arrasto bat izatea! Txikia bada ere. 10. Zatoz, hurbil zaitez, nahi baduzu, eta uki nazazu. Hau orain kontsumitzeko da. Zaila dirudi paper inprimatura eramatea. Badakizu eternitatearekin elkarbizi badaiteke ere, ez duela denboraren igarotzea jasaten.

kabinako tripulazioa aireratzeko pistan sartzen hegaldi ona jarlekuaren azpian zalantzaren bat baduzue hegaldi ona puzteko ez da inoiz aireko barruan puztu behar ikusgai utzirik arnasmaitasunarekin normaltasunez arnas egin denak errespetatzeko eta Barajasi beste itxura bat ematearren badaude erretzaileentzako guneak normaltasunez arnas egin Madrileko aireportura jaisten atzeko aldea elektronikoak eskerrik asko aulki uhalak lotu itzalita eduki itzazue eskerrik asko kontuan hartu aireratze eta lurreratzean atek ireki arte iritsi arte gogoko izatea aurreko poltsan aurkituko duzuna jarraian erakusketara egingo dugu segurtasuna larrialdietarako bi leihatila hegoen gainean irteera guztiak baita leihatila ere arrapala bat dago igeri-jaka kokatuta dago burua irekiunetik sartzen da puztu dezakezu ere hodiaren bitartez ez jaiki hegazkina erabat gelditu arte prestatu kabina aireratzeko kabina despresurizatuko balitz arnasmaitasunarekin eta hegaldi ona horiek askatzeko altxatu kagogailuaren mihia mila esker zuen arretagatik oraingoz gure gurutzaldi mailan gaude oinak eta hegaldi ona

Pere Sousa

ITSATSI
JOSI
AZALETAN SARTU
EGOKITU
LERROKATU
PILATU.
NIRE AUTOBUSERA DEITUKO DIZUT.

Carlos Tejo

ALDIZKARIEN PERFORMATIBOTASUNAZ

ORDUTEGIA:

- 10:00ETATIK 14:00AK ARTE
ETA 17:00ETATIK 20:00AK ARTE
LARUNBATETAN ITXITA.

Orri-pasa ibiltzea betidanik izan da performatikoa. Aldizkariak bildumatzea ere performatikoa da. Eta haiek koadernatzea eta erakustea. Objektu gisa hartuta ebaki egin daitezke, pilatu, metatu, hautsi...

Gero aldizkari ibiliak daude, berez deriba bat direnak, eta antzinako poetek antolatzen

zituzten aldizkari mintzatuak. Pentsatzen ari naiz autobusez aldizkari bat deitzea. Deriba eroso izango da.

Eta bai, performanceak mundu inprimatuaren justu kontrakoa ematen du, baina bai, zera.

Baina aldizkari-objektuez edo aldizkari-elkarretaratzeez ari bagara, performatibotasuna zabaldu egiten da; izan ere, ez da bakarrik gertatzen aldizkaria argitaratutakoan, haren gauzatzearen unean bertan hasten baita. Itsatsi, josi, elkartu, azaletan sartu, egokitu, poltsaratu, zuzendu, lerrokatu, pilatu, tolestu, ebaki, zenbatu, eta ale bakoitza muntatzeko egin behar izaten diren ezin konta ahala operazio, berriketa eta txantxez beteriko talde-performance bilakatzen direnak.

- 1 hipotesia: Performance bat denboran gertatzen da.

- 2 hipotesia: Zine bat editatzea inguruko denbora tipografikoki ordenatzea da.

Badago inprimatutakoari etengabetasuna, are betikotasuna ere, egotzi liezaiokeenik; baina zine bat une bat baldin bada, espazioan egindako baterako ekintza baten gaurkotasuna da. Jendeak topo egiten du eta aldizkaritu egiten da.

Azkenik, «irakurle/hartzailleak» bere aldetik ireki egin beharko du, destolestu, bereizi, zehar argitara begiratu, hautsi eta urratu, jolastu, osatu eta abar, eta abar, editorearen/editoreen irudimenak proposa dezakeen eta zure umoreak aholkatzen dizun neurrian.

Bere keinua komunikatzeko, jendeak idatzi egiten du. Keinua idazten du eta keinua dela-eta idazten du. Underground edizioa ahalegintzen da ekintza labor batez hitz egiten, kulturarenaz, badagoelako, izaten ari delako, badoalako, joaten ari delako...

Baina, beti bezala, gauzak egitearekin amestea da performatiboena. Eta horretarako ez da behar ez teoriarik ez ametsen material oso lausoa baino material gehiagorik.

Beste aldetik, zer da manifestu futurista, ekintza bat baino? zer, *Le Figarok* argitaratutako testu bat baino? edizioa edo ekintza? Edizioa eta ekintza. Futurismoa.

Hilario Álvarez

María Salgado

- 1 TESIA: PERFORMANCE BAT GERTATZEN DA

AUTOBUSEAN IKUSI ZINTUDAN

POLTSA ZURI BAT ZENERAMAN

- 1 ANTITESIA: ORDENATZEA INGURUKO DENBORA TIPOGRAFIKOKI EDITATZEA DA.

-ZURE ZAIN NAGO-

- SINTESI 1+1 = PERFORMANCEAK DENBORA ORDENATZEN DU, BAINA ZINE BAT UNE BAT DA.

Ezinbesteko kontua bizirik egotea da.

EDIZIOA/EKINTZA
EKINTZA/EDIZIOA
EDIZIOA/EKINTZA/EDIZIOA/EKINTZA
EKINTZAEKINTZAEKINTZAEKINTZAEKINTZA

Performancea, bizitza bezalaxe, ez da errepikatzen, ez itzultzen, ezta edukitzen ere, denbora mugatu bat DA, lehen bat izan duena eta gero bat izango duena.

Tarte horretan performancea edizio molde bat bezala uler daiteke ESPERIENTZIArekin eta PRESENTZIArekin, bizirik egotearen

| | |
|--|--|
| <p>KONTZIENTZIA hartzea, eguneroko errutinan gertatzeko eta batez ere esperimentatzeko zailagoak diren EGOERA jakin batzuk eraginda pertsona gehiagorekin PARTEKATUZ. Geure buruari baimenduko bagenio bezala une jakin batzuk aukeratzea gidoi bihurtzeko eta BIZITZEKO egitatea editatu, GERTATZEA eta EGITEA erabaki. Performancea gertatu egiten da, gertatu egiten zaigu, horregatik ez du balio ez esplikatzeak ez kontatzeak. Errepikaezinaren leku bilakatzen da, pertsonal eta besterenezinarena, edukitzen edo trukutzen ezinezkoa denaren eremu; formatutik behartzen du norberaren larruazalean esperimentatzea, beste edozein gauza beste gauza bat izango litzateke.</p> <p>Informa zaitetz besterik gabe zure inguruko programa performatikoaz eta zoaz hara, gustuko duzun edo ez duzun gauza batekin topo egingo duzu, zure bizitzan gertatu diren gauzen parte bihurtuko da. EGIN dezakezu edo ez, hurbilagora edo urrunagora iritsi, errepikatu edo izututa irten, egiten duzuna egiten duzula HAUSNARTU egin beharko duzu lur gainean EGOTEKO eta inguratzen zaituen airea SENTITZEKO hartzen duzun jarrera motaz.</p> | <p>ezarritako kodeen irakurketa atipiko sorta moduan eta espazioarekin, denborarekin eta pertsonarekiko praktika buru-erreferente gisa ikus daiteke.</p> <p>Hurbiltasuna, baita bat etortzea ere, nola formetan hala pertsonetan, XX. mendeko beste adierazpen tipiko batzuekin, hala nola arte kontzeptuala, prozesuen artea, ikusizko poesia, poema-objektua, eta era oso berezian liburu-objektuarekin, e.a... Adierazten digu produkzio estetikoaren formulazio berri baten aurrean gaudela.</p> <p>Ekintza bat (dela gertakari bat, happening bat edo performance bat) definitzen duten hiru osagaiak, denbora, espazioa eta pertsonak, beste edozein osagairekin elkarbizi daitezke, dela eguneroko bizitzarena edo muntaketa ikusgarriena. Eta hain zuzen ere ekintzaren formula laster sartzen da (Dada antzerkian bezala) proposamen (posiblea edo ezinezkoa) gisa, eta literatura gisa.</p> <p>Aldizkari-objektuak, elkarretaratutako edo artikulatuak, bertsio performatikoa dira esparru editorialean, zeinean teknologiaren erabilerak bere ibilbidea denboran areagotzea ahalbidetzen baitu, baita performance tipikoetan ezin aurreikus daitezkeen espazioak iristea ere. Horren trukean, denbora eta leku unitatea ezeztatuta geratzen da.</p> |
| <p>SENDO</p> <p>SENDO-TASUNA</p> <p>SENDOTASUNA</p> <p>HURBILTASUNA ETA HIRU OSAGAI</p> <p>DADA</p> <p>DEPRESIOA ESPAINIAN</p> <p>ADIBIDE GEHIAGO DAUDE.</p> | <p>Aldizkari instituzional baten kasuan, performanceak zabaltzen dituen aukerak mugatuta geratzen dira bere kode propioak era atipikoan interpretatzeko duen ezintasunagatik edo zailtasunagatik.</p> <p>Adibide bat jarriko dut: laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean Artelekuk liburu sorta bat erosi zuen, haien artean nire <i>La depresión en España</i> liburuaren bigarren edizioa. Hartu eta gero, andereño adeitsu batek telefonoz deitu zuen esanez liburu bihurtu nahi egin zuela «erabat urratuz beteta zegoelako». Onartu egin zen haren proposamena baldintza batekin: alegia, bihurtze-gutunean adieraz zezala horren</p> |
| <p>PERFORMANCEA, EDIZIORAKO LANABESA.</p> <p>Abstraitu egiten badugu edozein lantze teoriko, eta batez ere interpretazio sinbolikoak eta parateatralak, ekintza artea XX. mendean</p> | |

motiboa. Liburua gutunarekin iritsi zen, baina bertan bakarrik adierazten zen telefonozko solasaldian adostutakoari jarraiki bihurtzen zela liburua.

Fernando Millán

egotera ikusten ari diren horretan bere dimentsio fisikoagatik (ukitzea, usaintzea, denboraren joana, e.a.), zeina gehienetan gutxietsia baina oso indartsua izaten baita. Bere indar akuilagarri eta higuigarri, eraldatzailearengatik. Pentsa dezagun performance gero eta gehiago «otzandua» dagoen sentipena: zikitzen ez duena, usainik uzten ez duena, dena zegoen bezala geratzen denekoa, biluzirik ez duena, ezta gorputz-hotsik zein hitz iraingarririk, e.a. «Errespetatzen ezazu kokagunea, sentsibilitatea, espazioa berriro laga diezaguten, edo dirua berriz eman diezaguten...» moduan saltzen digute. Hori normalizatzea da, esperientzia bat ikusizko zerbait bihurtzea, horrenbestez normalizatua eta askoz ere kaltegabeagoa.

EMAKUME GARATAK

EMAKUME TXIKIAK

EMAKUME UTOPIKOAK

POLITIKAK:

ZOPAUSAINADARIENEMAKUMEEZINGURATUTANAGO

Pertsonala dena politikoa da
Nire gorputza politikoa da
Obra politikoa da

María AA

gure bizitza/obra/ekintzak/lanaren bidez mundua aldarazi dezakegun utopiaren barruan... Irakurtzen duguna, ikusten duguna, kontsumitzen duguna, mugitzen garen lekua, pentsatzen duguna, egiten duguna eta nola egiten dugun, esaten duguna eta nola esaten dugun, nori dagoen zuzenduta, horrek guztiak bere adierazlea eta bere adierazia du, bere kodea eta bere indar eraldatzaile eta buru-erreferentziala. Koherentea da hura deseraiki, aztertu eta berreraikitzea, jakiteko non gauden eta zer/nor/nolakoak garen eta zer egin nahi dugun.

PRAXINOSKPIO BAT ADIBIDE BAT DA

ESKEMAK NOLA

HAUTSI BEHAR DIREN.

Marcel Duchampen *La Boîte en Valise* erakusketa baten deseraikitzearen adibide garbia da.

La Más Bella performance deseraiki bat da, eskema guztiak, bai komertzialak ere, hausten dituena.

«...performance kontzeptua, edizio-tresna bat baita, gure eguneroko ikusizko kulturaren materiala editatzen laguntzen diguna, eta hartara baita bizi dugun eta zeharkatzen dugun ikusizko kultura interpretatzen ere...».

Luan Mart

Uste dut gure EGUNEROKO ikusizko kulturak eredu kontserbadore eta patriarkaletara berbideratzen gaituela + gure EGUNEROKO kultura batez ere ikusizkoa dela. Hala, irudien «kontsumitzaileen» inplikazio zuzenaren balioztapena da ekintza batek kontzientziak astintzen dituela, eta subjektuak pasarazi rol pasibo batetik erremediorik gabe inplikatura

EZ ZARA INOIZ PERFORMANCE BATEAN IZAN?

EZ

INDIAN ETA HEGOAFRIKAN IZAN NAIZ.

| | |
|---|---|
| PERFORMANCE da: | argazkia, baina testua eta inprimatua ere |
| P E arteko ibilbide mentala | bai, lurralde ezin hobe a dira ekintza artea komunikatzeko, eta are argazki-ekintza eta inprimatu-ekintza ahalbidetzen duen espazio ideala ere. |
| P | |
| . | |
| . | Kontu honetan guztian, argazki dokumentala, baita sekuentzia eta kolore posibleen gama osoaren bitartez ere, da gehien zalantzan jarria, beti behar baitu argazki oineko testuaren makulua eta dokumentatzen duenaren iragazkia (ikuspuntua) kontuan hartzea, baina gainerakoan ez al da gauza bera gertatzen komunikazio prozesu guztietan? Gogoan hartu behar da Marcel Duchampen gaztigu zorrotza: «obrak besteek osatzen dituzte»... |
| E arteko ibilbide mentala | |
| P + | |
| E + | Joan Casellas |
| R + | |
| F + | |
| O + | |
| R + | (ETA HITZALDIAN ETZAN DA OINETAKOAK ERANTZI GABE ETA ARGIA ITZALI GABE). |
| M + | |
| A + | |
| N + | |
| C + | |
| Eren ibilbide mentala | Performancea arte diziplina anitzen lurralde-bidegurutzea da: soinu-zuko artea (bera ere beste bidegurutze bat), dantza, mimoa, esku-jokoa, antzerkia, zirkoa, hitzaldia, kontzertua. Hori guztia eta gehiago sartzen da performance batean, eta honek denari ematen dio bere estatutua eta aldi berean ekintza bateratuen integrazio koherentea da. (Badakit ez dudala performancea zer den definitu, baina hori hobeto egiten duzue gauza horietan aritzen zaretenak...). |
| | Concha Jerez |
| BENETAKO ESPERIENTZIA EZ ZARA DAMUTUKO BESTEENA! | |
| | José Iges |
| NOLA EDITATU EKINTZA BAT? | |
| Ekintza artea iraupen laburrekoa da definizioz, eta horretatik askoz ondorioztatzen dute ezin dela ez dokumentatu ez transmititu, esperientzia besterenezina dela... AIREtik (aldizkaria eta artxiboa) kontua bestelakoa izango litzateke, igorle-hartzaile komunikazio mekanismoaren bidez funtzionatzen duen ideien arteari dagokionez. Ikuspuntu horretatik, | KONTRAZALA // PUBLIZITATEA KAMIOTIAK ETA AUTOBUSAK HERRI OSOAN |